




Prestakuntza-programa

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza


SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Aurkibidea

- 01 Atarikoa: helburuak, oinarrizko kontzeptuak
- 02 SEEPen testuinguruan iruzur egiteko arrisku nagusiak
- 03 Eusko Jaurlaritzaren iruzurraren aurkako neurrien plana
- 04 Ondorioak eta amaiera



Atarikoa: helburuak,
oinarrizko
kontzeptuak



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza


Atarikoa - Testuingurua



Next Generation EU programa Kontseilu Europarrak onartu zuen 2020. urtean; 750.000 milioi euroz hornitua dago, eta Europar Batasunaren finantzaketakimena handienetako bat da. Programa horren **helburu nagusia** da COVID-19aren pandemiak sortutako **krisi ekonomiko eta sozialari batera eta modu koordinatuan erantzutea**.

Batasuneko estatuei eskatu zitzaizkien ekimenari atxikitzeko, eta, horri erantzunez, **Espainiako Gobernuak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP)** aurkeztu zuen, 2021eko apirilaren 30ean.

SEEPen txertatutako neurriak betearazteko orduan, **funtsezkoa** da Europar Batasunaren interes finantzarioak babestea planaren betearazpenarekin zerikusia duten lau **arriku espezifiko** hauetatik: **iruzurra, ustelkeria, interes-gatazkak eta finantzaketa bikoitza**.



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Atarikoak - Iruzur egiteko estimulu nagusiak




01

02

03

04

Zein dira iruzur egiteko baldintzak?



PRESIOA jasatea (pertsonala edo profesionala): aurrekontu pertsonala gaizki kudeatzea; aurrekontu-helburuak ez izatea errealistak edo lorrezinak izatea; egoera ekonomiko kaskarra; inguruabar pertsonalak, etab.

Iruzur egiteko AUKERA IZATEA: gehiegizko konfiantza; irispide pribilegiatua; lan-ingurunea oso sakon ezagutzea; kontrolik eza; segurtasun-neurririk eza, etab.

Delitu-jokabidea JUSTIFIKATZEA: injustizia-sentimendua; arrazoi ideologikoak; entitatearekin pozik ez egotea; baldintzen desparekotasuna; garapen profesionalerako aukerarik eza, etab.

Jarduera publikoaren izaera

Bitartekari eta laguntzaile askoren esku-hartzea duten prozesuak; **munta handiko** kontratazio- eta azpikontratazio-**akordioak**; **betearazpenaren atomizazioa**; **funtsezko jarduera publikoaren** kontsiderazioa, etab.

Jarduera publikoaren ingurunea

Aurrekontu-murrizketak, handitzen ari den jarduera publikoan; antolakunde-egitura konplexua edo ezegonkorra; langileen txandakate-tasa altua; informazioaren teknologien **aldaketa bizkorak**, etab.

Barne-kontrolen eraginkortasuna

Kontrolari behar bezalako **jarraipenik** ez egitea; **barne-kontrola** eraginkorra ez izatea edo gaizki diseinatuta egotea; **politikarik edo prozedurarik** ez egotea; **erregistro-sistemak** desegokiak izatea; **eraginkortasuna aztertze**ko prozesurik ez egotea; **erregistro automatizatuetarako** irispidea behar bezala ez kontrolatzea, etab.

Entitatearen eta langileen etika eta balioak

Prebentzioaren eta portaera etikoaren aldeko kulturarik ez egotea; **jokabide-koderik** ez izatea; ezarrita dauden **printzipio etikoak eta arauak** bat ez etortzea egiten den jarduera publikoarekin, etab.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Atarikoa - Iruzurraren inpaktua eta ondorioak, joerak, arauak.

Egungo testuingurua: gure inguruneko erronka eta mehatxu berriak

- **Baliabide publiko asko** daude, pandemiak eragindako inpaktuak arintzeko.
- **Bizkor** jokatu behar da, eta **presioa** dago emaitzak lortzeko.
- Informazioaren teknologien sistemekiko eta teknologiarekiko **mendekotasuna gero eta handiagoa** da.
- Testuinguru ekonomikoa **aldatzen** ari da **etengabe**.
- Arautzaileek, interes-taldeek eta abarrek **eskakizun berriak** dituzte.
- **Teknika, metodo eta tresna berriak** agertzen dira, gero eta sofistikatuagoak.

Balizko inpaktua: iruzurraren ondorio nagusien adibideak



Ospearen gaineko inpaktua

- Herritarrek konfiantza galtzea.
- Lehia librea distortsionatzea.
- Lizitazio publikora irispide librea izateko eskubideak urratzea.
- Operadore ekonomikoen tratu-berdintasuna.



Inpaktu ekonomikoa

- Aurrekontu publikoan gainkostuak sortzea.
- Isunak edo demandak jasotzea.
- Lanorduen ondorioz kostuak sortzea.
- Publizitatean eta komunikazioan inbertitzea.



Operazioen gaineko inpaktua

- Langileek motibazioa galtzea.
- Kontratututako zerbitzuen eta egindako obren kalitatea txartzea.
- Eskurapen-aukeren edo nahitaezko inbertsioen kostua.



01

02


03

04

Arauak: HFP/1030/2021 Agindua - SEEP kudeatzeko printzipio espezifikoak

- **Mugarri eta helburu kontzeptuak**, bai eta haien jarraipena egiteko eta emaitza egiaztatzeko irizpideak ere.
- Etiketatze **berdea** eta etiketatze **digitala**.
- Arriskuen analisia, balizko **ingurumen-inpaktu negatibo esanguratsuei** dagokienez (*do no significant harm, DNSH*); jarraipena eta emaitzen egiaztapena hasierako ebaluazioaren gainean.
- **Iruzurra**, ustelkeria eta interes-gatazkak **prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea**.
- Estatuko laguntzen araubidearekin bateragarri izatea eta **finantzaketa bikoitza prebenitzea**.
- **Funtsen azken hartzailea** identifikatzea, dela laguntzen onuraduna, dela kontratu baten adjudikazioduna edo azpikontratista.
- Zehapen-**prozedura administratibo eta judizialak** jakinaraztea.

SEEPen testuinguruan
iruzur egiteko arrisku
nagusiak



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza


SEEPen testuinguruan iruzur egiteko arriskuak kudeatzea

SEEPen esparruan iruzurra prebenitzeko helburuak lortzen direla bermatzeko, ezinbestekoa da sistema bat ezartzea, oro har jakiteko zein diren SEEPen funtsak esleitzeko prozesuari eragin diezaioketen arriskuak. Sistema horren helburua izango da halako programei lotutako iruzur-gertakariak osoki kudeatzea eta kontrolatzea.



- Arriskuen kudeaketa txertatuta dago adjudikazio-helburu espezifikoaren plangintza- eta adjudikazio-estrategian.
- Fokua jarrita dago bai adjudikazio-estrategiaren arriskueta, bai haren betearazpen-arriskueta.

- Arriskuak jakinarazteko esparru eta irizpide komunak.
- Arriskuen etengabeko monitorizazioa, duten kritikotasunaren arabera.
- KRI (*Key Risk Indicators*) agente-taulak, erabakiak hartzen laguntzeko.
- Kanpotik barrurako ikuspegia, datuekin konbinatuta, arriskuei aurrea hartzen laguntzeko.



- Rolak, erantzukizunak, jakinarazpen-bideak, prozesuak, politikak eta kontrolak.
- Arrisku ezagunak eta gorantz doazenak identifikatu, ebaluatu, kudeatu eta monitorizatzeko prozesuak.

- Arriskuak kudeatzeko kultura komuna.
- Arriskuak hartzeko grina eta tolerantzia definitzea.
- Arduradun exekutiboek arrisku kritikoak aztertzea.
- Arriskuak Kudeatzeko Eskuliburua, prozedura nagusiak azaltzen dituen.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

SEEPen esparruko iruzurraren funtsezko alderdiak




01

02

03

04

SEEP planaren helburuetako bat da iruzurrezko jarduera oro aldentzeko kultura sustatzea funtsak betearazi behar dituen antolakundearen barruan, iruzurra prebenitzen eta detektatzen lagunduko duena eta, iruzur-kasuren bat gertatuz gero, halakoak kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatzea bermatuko duena. Zazpi alderdi nagusi nabarmentzen dira.



Iruzurraren aurka borrokatzeko neurrien plan espezifikoak garatzea

Plan horrek iruzurraren aurkako neurriak modu proportzionalean egituratu behar ditu, “iruzurraren aurkako zikloa” deritzonaren funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Arriskuak ebaluatzeko tresnak eta prozedurak sortzea edo eguneratzea

Entitate betearazleak iruzurraren arriskua, inpaktua eta probabilitatea ebaluatu eta aldizka berrikusi behar ditu, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazteko funtsezko prozesuetan; hain zuzen, bi urtean behin edo urtero berrikusi beharko ditu alderdi horiek –iruzur-arriskuaren arabera– eta, orobat, beti berrikusi beharko ditu, iruzur-kasuren bat detektatzen denean edo prozeduretan edo langilerian aldaketa esanguratsuak daudenean.

Bereiz tratatu beharreko arriskuak

Zenbait alderdi –hala nola interes-gatazkak eta finantzaketa bikoitza– bereiz tratatzen dira, bai SEEP kudeatzeko Aginduan, bai Suspertze Planean eta SEM Erregelamenduan, zaila baita arrisku horiek apaltzea. Horregatik, entitate betearazleak arreta berezia ipini behar die halako arriskuei, eta neurri espezifikoak proposatu.

Prebentzio-neurriak

Iruzurraren aurkako zikloa osatzen duten etapei dagokienez, prebentzioa fase giltzarria da iruzurraren aurkako borrokan. Garrantzitsua da, beraz, onartzen diren prebentzio-neurriak proaktiboak eta proportzionatuak izatea, aurrez identifikatuta dauden eta apaldu edo saihestu nahi diren arriskuen probabilitate eta inpaktuarekiko, eta bereziki kontuan hartzea kostu/efikazia erlazioa.

Detekzio-neurriak

Iruzurraren aurkako borrokan, detekzioa etapa kritikoa da, orduantxe espero baita entitateak ezarritako tresnek eta lortutako ezagutzek emaitzak sortzea. Iruzurrak nola detektatu diren jakitea ezinbestekoa da iruzur egiteko eskemak ikertu eta detekzio-estrategiak eta -ereduak ezartzeko; testuinguru horretan, tresna teknologikoen funtsezko eginkizun bereizgarriak dituzte.

Neurri zuzentzaileak

Kontrol-esparruan, SEEP zuzen betearazteko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartu behar dira. Hiru jarduketa nagusi aurreikusten dira:

- Prozedurak etetea eta, hala badagokio, hirugarrenei egin beharreko ordainketak etetea edo geldiaraztea.
- Bidegabe ordaindutako funtsak berreskuratzea.
- Hala badagokio, agintaritzaren eskudunei gertatutakoaren berri ematea, administrazio-, ondare-, kontabilitate- edo zigor-arloko erantzukizunak eskatzeko.

Zehapen-prozedura administratibo eta judizialak jakinaraztea

SEEPen entitate erabakitzaile eta betearazleei gomendatzen zaie ezen jakinarazi diezaiotela Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari (IGAE) programa baliatuz finantzatutako gastuei eragiten dien zehapen-prozedura administratibo eta judizial oro, bai eta aurrez jakinarazitako kasuen aldaketa oro ere, hau da, kasuaren artxibatzea edo largestea edo beste edozein ebazpen mota. Hilabete naturaleko epearen barruan egin behar dute hori.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

SEEPen testuinguruan dauden arriskuen taxonomia-adibideak




01

02

03

04



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Bereiz tratatu beharreko arriskuak (I/II) – Interes-gatazka



01

02

03

04

Lehen adierazi dugunez, interes-gatazkekin eta finantzaketa bikoitzarekin zerikusia duten alderdiak bereiz tratatzen dira, bai SEEP kudeatzeko Aginduan, bai Suspertze Planean eta SEM Erregelamenduan; horrenbestez, entitate betearazleak arreta berezia ipini behar die halako arriskuei, eta neurri espezifikoak proposatu.



Kontzientziazioa


Nahitaezkoa da **kudeaketaren kultura izatea** – Etengabeko prestakuntza oso eta nahitaezkoa eskaini behar da etikari eta integritateari buruz eta interes-gatazkek detektatzeko, kudeatzeko eta gainbegiratzeko moduari buruz.



Politikak, arauak eta prozedurak

Nahitaezkoa da prozedurak sortzea, eginkizunak behar bezala bereizten direla bermatzeko.

Interes-gatazkek arautzeko prozedura formalak egon behar dute.



Adierazpenak: interesak, ondarea eta eginkizun eskusiboak

Interes-gatazkarik ezaren adierazpenak erabilgarriak dira interes-gatazkek dituzten egoerak detektatzen eta kudeatzen laguntzeko. Garrantzitsua da antolakundeek irizpide argi eta objektiboak ezartzea **interes-adierazpenak ebaluatzeko** – egiaztapen efektiboak.



Beste neurri batzuk

Datu-baseetako informazioa egiaztatzea.

Datuen tresna analitikoak erabiltzea.

Kultura eta prestakuntza

Dokumentazioa formalizatzea

Egiaztatzea eta ebaluatzea

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Bereiz tratatu beharreko arriskuak (II/II) – Finantzaketa bikoitza



Finantzaketa bikoitzari dagokionez, entitate betearazleei gomendatzen zaie iruzurraren aurkako neurrien planean azal dezatela zer prozedura ezarri dituzten barne-kontrolako eta kudeaketako sistemetan, ziurtatzeko programaren funts-betearazpenean ez dagoela finantzaketa bikoitzik eta kasuan kasuko gastua programaren betearazpenari lotuta dagoela.

Ildo horretatik, finantzaketa bikoitza kontrolatzeko, oso erabilgarria izan daiteke proiektuen, azpiproiektuen edo ekintza-lerroen finantzaketa-iturriak identifikatzea SEEPen kudeaketa eta jarraipenerako informazio-sisteman.

Horrez gain, neurri hauek aplika daitezke:



Erantzukizunen deskribapen xehea

Erantzukizunak zehatz-mehatz deskribatuz, Europar Batasunaren finantzaketa-iturriak modu osagarrian eta koordinatuan kudeatzen direla bermatuko da.



Finantzaketa-fluxu bananduak

Finantzaketa-fluxuen banaketa sistematikoa.



Koordinazio efektiboa

Funtsak betearazteaz arduratzen diren beste organo batzuekin behar besteko koordinazioa ezartzea.



Egiatzapen gurutzatuak

Komeni da informazio fidagarria duten iturriak erabiltzea egiatzapen gurutzatuak egiteko.

Finantzaketa bikoitza prebenitzeko eta detektatzeko, biziki gomendatzen da **hainbat datu-base edo informazio-sistema kontsultatzea** – Dirulaguntzen Datu Base Nazionala, *Arachne* edo *Financial Transparency System*.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Kontrol-adibideak



01

02

03

04

Funtsak jaso eta laguntzak betearazten dituzten
sozietateak



Kontrol-adibide hauek funtsak jaso eta laguntzak betearazten dituzten sozietateei zuzenduta daude.



Kaudimen tekniko eta finantzariarik ez izatea.



Sozietate atxiki ez-legitimoa onartzea.



Betekizunei edo betebeharrak betetzeari buruzko agiriak faltsuak izatea.



Soluzioa merkatu-preziotik kanpo egotea.

Onuraduna



Kontrol-adibide hauek funtsen onuradunei zuzenduta daude.



Akordia epez kanpo formalizatzea.



Onuradunak adostasunik ez ematea.



Onuradunaren eta laguntza betearazten duen sozietatearen artean kolusioa egotea.



Justifikazioko kontua eta jasotako laguntza inkoherenteak izatea.

Inplikaturako instrukzio-organismoak / organo laguntzaileak



Kontrol-adibide hauek inplikaturako instrukzio-organoei / organo laguntzaileei zuzenduta daude.



DNSH printzipioa ez betetzea.



Onuradunaren eta instrukzio-organoko kideren baten artean kolusioa egotea.




Soluzioa ongi ezarri izana ez egiaztatzea.



Eskuzko onarpen ez-legitimoak.

Eusko Jaurlaritzaren
iruzurraren aurkako
neurrien plana.



Iruzurraren eta
ustelkeriaren aurkako
tresnak eta prozesuak



Prebentzio-tresnak



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Eusko Jaurlaritzak iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko ezarritako tresnak eta prozesuak



01

02

03

04

Jarraian, Eusko Jaurlaritzak iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko dituen prozesu eta tresna nagusien berri emango da; **zehazki, prebentzio-tresnak** azalduko dira:



Iruzurraren aurkako borrokari buruzko adierazpen instituzionala

Entitateek hartutako konpromiso publikoa, estandar etiko gorenak lortzeko. Neurrien Planaren I. eranskinean, iruzurraren aurkako borrokari buruzko adierazpen instituzionala ageri da, inplikaturako erakundeentzat errazagoa izan dadin neurri hori betetzea.



Laguntzen jakinarazpenetan iruzurrik ez egiteko konpromisoa

Onuradunek iruzurraren aurkako neurriei atxikitzeko betebeharra izango dute. Testuinguru horretan, laguntzen jakinarazpenean eta onarpen-agirian formalizatuko da konpromisoa, adjudikaziodunen sinadura eta guzti. Kontratazioetan, nahitaezkoa izango da Europako kontratazio-agiri bakarra (EKAB) aurkeztea.



Unitate, zerbitzu edo organo arduraduna

Iruzur edo ustelkeria egoerak eta salaketak ebaluatzeaz arduratuko den lantaldea izango da; halaber, arduratuko da dagokien entitateei komunikazioak bidaltzeaz eta neurri zuzentzaileak proposatzeaz. Sail bakoitzeko kide bat egongo da lantalde horretan, eta urtean behin bilduko da.



Arriskuen hasierako ebaluazioa

Autoebaluazioa egitean datza; batetik, iruzur egiteko arriskuak identifikatzeko eta, bestetik, kontrol aringarriak ezartzeko, hartara murriztu daitezten organismoak, bere eskumenak garatuz, lehendik ezarrita dituen kontrolak aplikatu arren desagerrarazi ez diren arriskuak.



Etika- eta jokabide-kodea

Etika- eta jokabide-kodearen helburua da iruzurgileei beren asmoa kentzea, eta inplikaturako agintari eta langileen konpromiso gorena lortzea iruzurrari aurre egiteko eta integritatea, objektibotasuna, kontu-ematea eta zintzotasuna sustatzeko.



Prestakuntza eta sentsibilizazioa

Iruzurraren aurka borrokatzeko politikari buruzko prestakuntza-jarduera teoriko-praktikoak antolatzen dira.

Detekzio-tresnak



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Detekzio-tresnak



Segidan, Eusko Jaurlaritzaren **detekzio-prozesu nagusien** berri emango da, labur-labur:



Barne-kontrolako sistema

Barne-kontrol sistematikoak egingo dituzte SEM funtsak administratzen inplikaturako organo kudeatzaile eta betearazleek, edozein motatako anomalia, irregularitasun edo iruzurrezko jarduera detektatzeko.



Komunikazio-sistema

Plana aplikatu behar zaien entitateek barneko zein kanpoko kanaletan oinarritutako komunikazio-sistema bat ezarriko dute, iruzur-susmoen berri emateko aproposak diren jakinarazpen-mekanismo argiak izango dituenak.



Bandera gorriak

Balizko iruzurrezko jarduerak identifikatzeko balio duten alerta-seinaleak dira adierazle horiek.



Datuen egiaztapena eta gurutzaketa

Entitate betearazleek datuak lortzeko, biltegitzeko eta aztertzeko prozesuak optimizatzeko tresnak erabiltzea sustatuko dute, arriskuak ebaluatzeko, datuak sektoreko beste organismo publiko edo pribatu batzuekin gurutzatzeko eta arrisku handiko egoerak detektatzeko, baita funtsak eman aurretik ere.

Horiek horrela, argi utzi behar da datu pertsonalak babesteko arauak kontuan hartu behar direla. Horrenbestez, entitate betearazleek honako hauek erabiliko dituzte: merkataritza-erregistroetako, organismo nazionalako eta EBko datu-baseak, administrazio- eta langile-espeditentak eta datuen prospekzio-tresnak (*data mining*).

Kontratu eta dirulaguntzei aplikatzekoa den urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren arabera, agindu horren 4. artikuluan zehazten diren eragiketen arduradunek datuak gurutzatu beharko dituzte, agindu horrek 4. artikulutik 7. artikulura xedatzen duenari jarraikiz.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Detekzio-tresnak – Barne-kontrolako sistema



01

02

03

04



Kontrol sistematikoak

Barne-kontrol sistematikoak egingo dituzte SEM funtsak administratzen inplikaturako organo kudeatzaile eta betearazleek, edozein motatako anomalia, irregulartasun edo iruzurrezko jardura detektatzeko.

Adib.: sail bakoitzeko zerbitzu juridikoak txostena egingo du tresna bakoitzari buruz.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa – Tresna juridiko bakoitzaren kontrol fiskala eta arau-kontrola egingo ditu.

Organo kudeatzaileari kontrol-plana aplikatuko zaio. Sei hilean behin.



Txostenak egitea.

Kontrol horien ondorioz, eta arrisku-maila dela-eta beharrezkotzat jotzen den kasuetan, txostenak egingo dira, eta bertan islatuko dira aldi jakin batean detektaturako irregulartasun, iruzur-susmo eta iruzur guztiak, kontrol-agintaritzak ezarritakoaren arabera. Txostena egiteko, abiapuntutzat hartuko dira eginda dauden eta abian diren autoebaluazioen emaitzak.



Kontrol-organoak

Barne-kontrolako organo independenteek (Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, kontu-hartzaileak eta aholkularitza juridikoak), *ex ante* kontrolerako eta kontratazio-mahaietan parte hartzeko dituzten eginkizunak betez, detektaturako gorabeheren berri emango diete organo kudeatzaileei eta kide anitzeko organoei, eta, hala badagokio, kontrol-agintaritzari (II. mailako kontrola).

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Detekzio-tresnak – Komunikazio-sistema

Plana aplikatu behar zaien entitateek barneko zein kanpoko kanaletan oinarritutako komunikazio-sistema bat ezarriko dute, iruzur-susmoen berri emateko aproposak diren jakinarazpen-mekanismo argiak izango dituen. Barneko salaketak Euskal Autonomia Erkidegoko 89/2023 Dekretuaren mende daude, eta kanpokoak, berriz, 2019/1937 Zuzentarauaren eta haren transposizioa egiten duen 2/2023 Legearen mende.

Komunikazio-sistema kasuan-kasuan ezarriko da, eta gutxienez ekintza hauek bilduko ditu:


◆ **Inplikaturako agenteei eta herritar guztiei jakinaraztea IGAEk kanal publiko bat duela iruzurrezko jokabideen salaketak jakinarazteko.**

Kanal horretan, herritar guztiek eta neurrian esku hartzen duten pertsona fisiko zein juridikoek parte har dezakete.

◆ **Inplikaturako agente guztiei eta herritarrei jakinaraztea gardentasun-atariak** daudela: **Eusko Jaurlaritzaren kasuan, Irekian**; foru-aldundien eta udalen kasuan, haien webgune korporatiboetan.

◆ **Inplikaturako agente guztiei eta herritarrei jakinaraztea** bide arautuak daudela **iradokizunak, kexak edo salaketak modu pribatuan helarazteko**. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, edonor jar daiteke harremanetan Gobernuarekin edo Etika Batzordearekin modu pribatuan. Orobat, foru- eta toki-erakundeek beren web-orrietan argitaratu dituzte kexak eta iradokizunak aurkezteko prozedurak.

◆ **Inplikaturako agente guztiei eta herritarrei jakinaraztea** zein den **Arartekoaren egitekoa**: nagusiki, Administrazioaren **jarduketa oker edo irregularrei buruz herritarrek aurkezten dituzten kexak, eskariak edo kontsultak jasotzea**, eta horiek guztiak prozedura jakin baten arabera izapidetzea, dagokion administrazioari izan duen jokamoldeari buruz kontuak eskatzeko. Ordenamendu juridikoan ezarritakoari jarraituz, erabakitzen bada kexaren xede den jarduketa okerra izan dela, Arartekoak ebazpen bat emango du, eta administrazio arduradunari eskatuko dio, gomendio bidez, jarduketa okerra alda dezala.



◆ **Postontzi berezi bat jartzea**, Plana aplikatu behar zaien entitate betearazleetako langileek **mekanismoaren jarduketei buruzko salaketak** jaso ditzaten. Buzon-mrr@euskadi.eus Halako salaketak **protokolo espezifiko bat** erabiliz tratatuko dira, **salatzaileen nortasuna babesturik**. Salaketak ikertzeaz arduratuko dira eginkizun horretara bideratuta dauden langile bereziki kualifikatuak.

◆ Plana aplikatzen zaien entitateetako **langileei eta agintariei iruzur-susmoak jakinaraztea**, bai eta iruzurrarekiko kalteberatasuna areagotu dezaketen **ahulguneak** ere, komunikazio-ereduak erabiliz.

◆ **Informazioa modu koordinatuan eta antolatuan ematea** iruzurrak detektatzen parte hartzen duten gainerako agenteei: Plana aplikatzen zaien entitateetako **zerbitzu juridikoei, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta dagokien organo eskudunei**; Estatuaren Administrazio Orokorrean ikerketa-lanez arduratzen diren organismoiei, eta ustelkeriaren aurkako borroka arduratzen diren agintariei.

◆ **Gertakariak eta hartutako neurriak ahalik eta lasterren jakinaraztea entitate erabakitzaileari edo betearazleari**, kasuaren arabera; entitate horrek SEM mekanismoaren ardura duen agintaritzari jakinaraziko dio gaia.

◆ **Informazioa modu koordinatuan eta antolatuan ematea azpiproiektuak edo jarduketak** egiten inplikaturako egon diren agintariei eta **iruzurrezko jarduketaren eraginpean** egon ahal izan diren guztiei.

◆ Iruzur-kasu horiek jasotzen dituen **kontrol-txostenaren laburpena** eta entitate betearazlearen kudeaketa-txostena zabaltzea.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren detekzio-tresnak – Bandera gorriak



“**Neurrien Plana**” dokumentuko atal batean, “**bandera gorri**” gisara ezagunak diren adierazleen katalogo bat jasotzen da. Balizko iruzurrezko jarduerak identifikatzeko balio duten alerta-seinaleak dira adierazle horiek. Europar Batasunak informazioa eman die Batasuneko kideei, katalogo hori osa dezaten; iruzur egiteko arriskuak detektatzeko gai diren langile guztiek eta, bereziki, onuradunen jarduerak gainbegiratzeaz, agiriak egiaztatzeaz eta aurrez aurreko ikuskaritzak egiteaz arduratzen direnek ezagutu behar dute katalogo hori. Tresna juridiko bakoitzari egokitutako adierazleak daude: kontratazioa, dirulaguntzak, hitzarmenak eta bitarteko propioentzako mandatuak.

Esaterako, hauek dira **kontratazioen arlorako (kontratuak eta kontratazio publikoa)** adibide batzuk:



Ustelkeria, eroskeria eta legez kanpoko komisioak

Azalpena

Eroskeria eta legez kanpoko komisioa “baliozko gauzaren” bat ematean edo jasotzean datza, administrazio-egintza batean edo enpresa-erabaki batean eragiteko.

Iruzurraren adierazleak:

- Gizarte-harreman estua dago enplegatu kontratatzaile baten eta zerbitzu-emaile edo hornitzaile baten artean.
- Enplegatu kontratatzailearen ondarea azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da.
- Enplegatu kontratatzaileak kanpoko negozio ezkutu bat du.
- Kontratatista legez kanpoko komisioak ordaintzeko ospea du sektorean.
- Kontratuen balioa handitzen duten dokumentatu gabeko aldaketak edo aldaketa sarriak gertatzen dira.
- Enplegatu kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Enplegatu kontratatzaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.



Interes-gatazka

Azalpena

Antolakunde kontratatista langile batek kontratu batean ezkutuko finantza-interesen bat duenean, interes-gatazka sortzen da.

Iruzurraren adierazleak:

- Kontratista jakin batek azaldu gabeko edo ohiz kanpoko faboritismoa du. Etengabe onartzen da lan garestia, kalitate eskasekoa, etab.
- Enplegatu kontratatzaileak ez du interes-gatazkaren adierazpenik aurkezten edo betetzen.
- Enplegatu kontratatzaileak uko egiten dio kontratazio publikoarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.
- Enplegatu kontratatzaileak aparteko negozio bat zuzentzen duela dirudi, edo lehiara aurkez daitekeen sozietate batean lan egiten duten senideak ditu.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatu batek eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile batek sozializatu egiten dute.
- Kontratazioaz arduratzen den enplegatuaren aberastasuna edo bizi-maila azalpenik gabe edo bat-batean handitzen da.
- Lizitazioaren dokumentuak idazteaz arduratzen den pertsonak edo goi-mailako funtzionario batek kanpoko enpresa bat kontratatu nahi du dokumentazioa idazten laguntzeko, beharrezkoa ez bada ere.
- Prozedura negoziatua aukeratzen da, nahiz eta prozedura ireki bidez egin daitekeen.
- Kontratazio-organoko langile batek lehiaketan parte har dezakeen enpresa batentzat lan egin du, kontratazio-organoa sartu aurretik.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren detekzio-tresnak – Bandera gorriak



01

02

03

04



Lizitzaile baten alde moldatutako zehaztapenak eta baldintza-agiriak

Azalpena

Baldintza-agirik lizitzaile jakin baten kualifikazioetara egokitutako zehaztapenak dituzte, edo lizitzaile bakar batek soilik bete ditzakeenak.

Iruzuraren adierazleak:

- Eskaintza bakarra aurkezten da edo lizitaziorako hautagai diren proposamenen kopurua ohi baino nabarmen txikiagoa da.
- Aparteko antzekotasuna dago prozeduraren baldintza-agiri gidarien eta kontratista irabazlearen produktu edo zerbitzuen artean.
- Beste lizitzaileen kexak daude.
- Aurreko antzeko prozeduretan onartutakoak baino preskripzio murriztaileagoak edo orokorragoak dituzte baldintza-agirik.
- Ezohiko klausulak edo arrazoizkoak ez diren klausulak dituzte baldintza-agirik.
- Hornitzaile berari adjudikazio asko egiten zaizkio.
- Kontratzaileen eta lizitzaile batzuen artean harreman edo kontaktu pertsonalak daude.
- Botere adjudikatzaileak marka jakin bateko produktu bat definitzen du, produktu generiko baten ordez.



Kolusiozko lizitazioak

Azalpena

Eremu geografiko edo eskualde bateko edo industria-sektore jakin bateko kontratista batzuek konspiratu egiten dute lehiari aurre egiteko eta prezioak igotzeko, lizitaziorako kolusio-mekanismoen bidez.

Iruzuraren adierazleak:

- Eskaintza irabazlea handiegia da, aurreikusitako kostuekin, prezio publikoen zerrendekin, industriako antzeko edo batez besteko obra edo zerbitzuekin edo merkatuko erreferentziako prezioekin alderatuta.
- Lizitzaile guztiek prezio altuak eskaintzen dituzte etengabe.
- Eskaintzen prezioak bat-batean jaisten dira lizitzaile berriek prozeduran parte hartzen dutenean.
- Adjudikaziodunak eskualdearen, lan motaren eta obra motaren arabera banatzen/txandatzten dira.
- Adjudikaziodunak lizitzaile galtzaileak azpikontratatzten ditu.
- Ezohiko eskaintza-ereduak (adibidez, eskaintzek beherapen-ehuneko zehatzak dituzte, eskaintza irabazlea prezio onargarrien atalasearen azpitik dago ozta-ozta, kontratuaren aurrekontura doitzen da eskaintza, eskaintzen prezioak altuegiak dira, antzekoegiak, oso desberdinak, zenbaki biribilak, osatugabeak, etab.).

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren detekzio-tresnak – Bandera gorriak



01

02

03

04



Datuak filtratzea

Azalpena

Kontratazioaz, proiektuaren diseinuaz edo eskaintzen ebaluazioaz arduratzen diren langileek informazio konfidentziala filtratzen dute, lizitzaile bati proposamen tekniko edo finantzario bat egiten laguntzeko.

Iruzurraren adierazleak:

- Lizitazio-prozeduren kontrola eskasa da; adibidez, epeak ez dira aplikatzen.
- Eskaintza irabazlea hurrengoaren azpitik dago doi-doi.
- Eskaintza batzuk laster ireki dira.
- Eskaintza berantiarrak onartzen dira.
- Aurkeztutako azken eskaintza baxuena da.
- Eskaintza guztiak atzera botatzen dira, eta kontratua berriro ateratzen da lizitaziora.



Aurkeztutako eskaintzak manipulatzeko

Azalpena

Kontratazio-langileek jaso diren eskaintzak manipulatzeko dituzte, kontratista jakin bat hautatzen dela ziurtatzeko (eskaintzak aldatuz, “galduz”, zehaztapenetan ustez egindako akatsengatik baliogabetuz, etab.).

Iruzurraren adierazleak:

- Lizitzaileen kexak daude.
- Lizitazio-prozedurak ez dira kontrolatzen edo okerrak dira.
- Eskaintzak jaso ondoren aldatu izanaren zantzuak daude.
- Eskaintzak baztertzen dira, akatsengatik.
- Lizitzaile gaitua baztertzen da, arrazoi zalantzazkoengatik.
- Prozedura ez da esleitu gabe uzten, eta berriro deitzen da, nahiz eta eskatutako gutxieneko kopurua baino eskaintza gutxiago jaso.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren detekzio-tresnak – Bandera gorriak



01

02

03

04



Gastua zatikatzea

Azalpena

Langile kontratatzaileek erosketa bat bi eskaera edo kontratutan edo gehiagotan banatzen dute, lehia edo goi-mailako zuzendarien berrikuspenak saihesteko.

Iruzurraren adierazleak:

- Antzeko objektua duten bi erosketa edo gehiago daude, adjudikaziodun berari eginak, zuzeneko adjudikazio-prozedurak erabili ahal izateko onartutako mugen azpikoak.
- Erosketak arrazoirik gabe bereiztea, adibidez, eskulanerako eta materialetarako kontratu bereziak, biak lizitazio irekiko atalaseen azpitik egonik.
- Erosketa sekuentzialak, lizitazioen publizitatea egiteko betebeharraren atalasearen azpitik daudenak ozta-ozta.



Kontratuak nahastea

Azalpena

Antzeko hainbat eskaera dituen kontratista batek kostu berberak kargatzen ditu, eta gainfakturazioa eragiten du.

Iruzurraren adierazleak:

- Antzeko fakturak aurkezten dira zeregin edo kontratu desberdinetan.
- Kontratista berak epealdi berean zeregin baten baino gehiagoren fakturak egiten ditu.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren detekzio-tresnak – Bandera gorriak



01

02

03

04



Kostuak bidegabe lotzea

Azalpena

Kontratista batek iruzurra egiten du nahita, onargarriak edo arrazoizkoak ez diren edo kontratu bati zuzenean edo zeharka esleitu ezin zaizkion kostuak kargatuz. Lan-kostuak bidegabe kargatzeko aukera gehiago dago material-kostuak bidegabe kargatzeko baino; izan ere, teorikoki, langile baten lana edozein kontratutan karga daiteke.

Iruzurraren adierazleak:

- Gehiegizko edo ohiz kanpoko lan-kargak sartzen dira.
- Kontratuaren aurrerapenarekin bat ez datozen lan-kargak sartzen dira.
- Ordutegi-fitxetan aldaketa nabariak daude.
- Ezinezkoa da ordutegi-fitxak aurkitzea.
- Material-kostu berak kontratu bati baino gehiagori lotzen zaizkio.
- Zeharkako kostuak zuzeneko kostu gisa sartzen dira.



Prezioak desegoki finkatzea

Azalpena

Kontratistak bere prezio-proposamenetan kostuei edo prezioak finkatzeari buruzko datu gaurkotuak, osoak eta zehatzak ezagutarazten ez dituenean gertatzen da prezio-finkatze desegokia, eta horrek kontratua garestitzea dakar berekin.

Iruzurraren adierazleak:

- Kontratistak uko egiten dio kostuen egiaztagiriak aurkezteari, entregatzea atzeratzen du, edo ez da agiri horiek aurkezteko gai.
- Kontratistak dokumentazio desegokia edo osatugabea aurkezten du.
- Prezioak finkatzeari buruzko informazioa zaharkitua dago.
- Prezioek altuak dirudite, antzeko kontratuetako prezioen, prezio-zerrenden edo sektoreko batez besteko prezioen aldean.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren detekzio-tresnak – Bandera gorriak



01

02

03

04



Kontratuaren zehaztapenak ez betetzea

Azalpena

Kontratuaren zehaztapenak betetzen ez dituzten kontratistek iruzur egiten dute, zehaztapenak betetzearen itxura egiten dutenean.

Iruzurraren adierazleak:

- Proben eta ikuskapenen emaitzak ez datoz bat kontratuaren zehaztapenekin.
- Probak eta ikuskapenak ziurtatzen dituzten dokumentuak falta dira.
- Kalitatea eta emaitzak txarrak dira, eta erreklamazio asko daude.
- Kontratistaren gastuen erregistroetan egiaztatzen da, adibidez, ez dituela erosi obretarako behar diren materialak, ez daukala eta ez duela errentan hartu behar zen ekipamendua edo ez zuela behar besteko eskulanik lantokian.



Faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak

Azalpena

Kontratista batek nahita aurkezten ditu faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak, bere kontura jardunez edo langile kontratatzaileekin kolusioan, ustelkeriaren ondorioz.

Iruzurraren adierazleak:

- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak ez daude inbentarioan, edo ezin da horien berri eman.
- Ez dago fakturatutako ondasunen edo zerbitzuen ordainagiririk.
- Fakturatutako ondasun edo zerbitzuen eskaera zalantzakoa da edo ez dago.
- Kontratistaren erregistroek ez dute jasotzen lana egin denik edo beharrezko diren kostuak egin direnik.
- Prezioak, zenbatekoak, artikuluen deskribapenak edo baldintzak gehiegizkoak dira, edo ez datoz bat kontratuaren objektuarekin, eskaerarekin, ordainagiriaren erregistroarekin, inbentarioarekin edo erabilera-erregistroekin.
- Faktura askok zenbateko bera, faktura-zenbaki bera, data bera eta abar dute.
- Azpikontratazioak katean egin dira.
- Ordainketak eskudirutan egin dira.
- Ordainketak egin zaizkie paradisu fiskaletan inskribatutako enpresei.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren detekzio-tresnak – Bandera gorriak



01

02

03

04



Zerbitzu-emaile mamuak

Azalpena

Kontralistek enpresa mamuak sortzen dituzte eskaintza osagarriak kolusioan aurkezteko, kostuak puzteko edo gezurrezko fakturak sortzeko.

Iruzurraren adierazleak:

- Zerbitzu-hornitzailea ez da ageri enpresen direktorioetan, eta ezin da topatu Interneten, Googlen edo beste bilatzaile batzuetan.
- Zerbitzu-hornitzaileen helbideak ez dira aurkitzen.
- Zerbitzu-emaileak aurkeztutako zerrendako helbideak edo telefono-zenbakiak faltsuak dira.
- Paradisu fiskal batean inskribatutako enpresa bat baliatzen da.



Produktuak ordezkatea

Azalpena

Kontratuan zehaztutako artikuluak kalitate apalagoko beste batzuekin ordezte da, erosleak horren berri izan gabe.

Iruzurraren adierazleak:

- Enbalaje ezohikoak edo generikoak erabiltzen dira: bilgarriak, koloreak edo marrazkiak ez dira ohikoak.
- Espero den itxura ez dator bat benetakoarekin.
- Aldeak daude produktuen identifikazio-zenbakien eta argitaratutakoen, katalogoan daudenen edo numerazio-sistemakoen artean.
- Probetan edo funtzionamenduan detektatutako akatsen kopurua batezbestekoa baino handiagoa da, ordezeko piezak behar dira berehala edo mantentze-lanen edo konponketen kostuak handiak dira.
- Betetze-ziurtagiriak kualifikatu gabeko edo ziurtatu gabeko pertsona batek sinatuta daude.
- Alde nabarmena dago materialen kostu zenbatetsien eta benetako kostuen artean.
- Serie-zenbakiak ez dira ohikoak edo ezabatuta daude; serie-zenbakiak ez datoz bat fabrikatzailearen legezko numerazio-sistemarekin.
- Inbentarioan edo fakturan jasotako artikuluen zenbakiak edo deskribapenak ez datoz bat eskaeran aurreikusitakoarekin.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Eusko Jaurlaritzaren detekzio-tresnak – Datu-gurutzaketa egiaztatzea



Datu-gurutzaketa

Datu-babesari buruzko **legeek ezarritako mugak** errespetatuz, entitate betearazleek **datuak lortzeko, biltegitratzeko eta aztertzeko prozesuak optimizatzeko** tresnak erabiltzea sustatuko dute, arriskuak ebaluatzeko, datuak sektoreko beste organismo publiko edo pribatu batzuekin gurutzatzeko eta **arrisku handiko egoerak** detektatzeko, baita funtsak eman aurretik ere.



Data mining tresnak

Horretarako, Plana aplikatu behar zaien entitateetako agintari eta langileek barneko tresnak erabiliko dituzte, hala nola **Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma eta dirulaguntzen datu-baseak –EAEko Dirulaguntzen Erregistro Orokorra eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionala–**, bai eta datuen prospekzio-tresnak ere –**“data mining”**–, eremu gatazkatsuenetan funtsen iruzur-arriskua identifikatu eta ebaluatzeko –esaterako, kontratazio publikoan, alerta-adierazleak erabiliz– eta iruzurraren kontrako neurriak diseinatzeko.

Zuzenketa- eta jazarpen-
prozesuak




SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Zuzenketa- eta jazarpen-prozesuak




Usteko iruzur kasu bat detektatu eta komunikazio-sisteman ezarritako prozeduren arabera jakinarazi ondoren (Europako Batzordearen betekizunekin eta barne-betekizunekin bat etorriz), **organo kudeatzaileek** baloratuko dute ikerketa bat abiarazi behar den ala ez, eta bidegabe jasotako zenbatekoak berreskuratzeko eta dagokion akzio penala egikaritzeko ekintzak abiarazi behar diren ala ez.

HFP/1030/2021 Aginduaren 6.6 artikulua ezarritakoaren arabera, balizko iruzur kasu bat detektatzen bada, edo haren susmo arrazoituak badaude, Plana aplikatu behar zaien entitateek –zehazki, **organo kudeatzaileek**– nahitaezko urrats hauek egin beharko dituzte:



Iruzurra ebaluatzea eta sailkatzea

Plana aplikatu behar zaien sektore publikoko entitateek iruzurraren eragina ebaluatuko dute, neurrian esku hartu duen edonork emandako ebaluazio-txostenetan oinarrituta, besteak beste.



Jarduera berrikustea, etetea eta/edo amaitutzat ematea

Balizko iruzur kasu bat edo haren susmo arrazoitua detektatuz gero, berehala etengo da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako azpiproiektua edo jarduketa.


Beraz, iruzurrezko jardueraren eraginpean egon ahal izan diren ekintza-lerro edo azpiproiektu guztiak berrikusiko dira, bai eta horiekin lotuta esku-hartzaileek aurkeztu dituzten dokumentuak ere, eta iruzurrak ukitutakoak erretiratu egingo dira, baldin eta SEM funtsekin finantzatu badira edo finantzatzeko zain badaude.



Komunikazio-sistema

Entitate betearazleek konpromisoa hartzen dute ahalik eta eperik laburrenean jakinaraziko dietela detektatutako iruzurra edo iruzurraren susmo arrazoitua bai entitate interesdunei, bai inplikaturako organismoei.

Hauek dira entitate interesdunak: Iruzurraren Aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionala (SNCA), Iruzurraren Aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF), Fiskaltza eta auzitegi eskudunak. Inplikaturako organismoak, berriz, hauek izango dira: entitate betearazlea eta organo kudeatzaileak.




Espedienteak berrikustea

Agintaritza eskudunek ikerketa amaitzen dutenean, edo ikerketa hori kasuan kasuko agintaritzari jarraipena egiteko helarazten dietenean, Plana aplikatzen zaien sektore publikoko entitateek zehatz-mehatz berrikusiko dituzte balizko iruzurrarekin edo iruzur frogatuarekin zerikusia duten prozesu edo prozedura guztiak, eragiketa horretan eta/edo antzeko izaera ekonomikoa dutenetan sartutako espediente guztiak, eta barne-kontrolako sistemak.

Berrikusketak objektiboa eta autokritikoa izan behar du, eta ikerketaz arduratu diren agintariekin eta agintaritza judizialekin lankidetzan arituz eta legea betez gauzatuko da.

Berrikusketaren emaitzak aztertu ondoren, entitate horiek ondorioak aterako dituzte detektatu diren ahulguneei buruz.



Jasotako zenbatekoak berreskuratzeko (bidegabe ordainketak), baterako finantzaketa kentzea eta akzio penala

Entitate betearazleek eta agintaritza eskudunek onuradunek bidegabe jaso dituzten zenbatekoak berreskuratzeko eskatuko dute, bai eta detektatutako gorabehera duten espediente guztietatik Europar Batasunaren baterako finantzaketa kentzeko ere.

Horretarako, prozesu zorrotzak formalizatuko dira, iruzur eginez erabili diren EBren funtsen berreskuratzeari jarraipena egiteko.

Prozesu horiek argiak izan behar dute, baita prozesu zibila edo penala abiarazten den kasuetan ere.

Bestalde, iruzurgileentzako disuasio-neurri gisa, zehapen-jarduketei ikusgarritasuna emango zaie, eta halakoak aplikatzeko erabakia irmoa delako mezua indartuko da.

Interes-gatazkak saihesteko
prozesuak eta tresnak



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Interes-gatazkak saihesteko prozesuak eta tresnak



01

02

03

04

Hauek dira Eusko Jaurlaritzak **interes-gatazkak** saihesteko dituen **prozesu eta tresna** nagusiak:



Inplikaturako pertsonak

Inplikaturako pertsonak. Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta halako eginkizunak eskuordetu zaizkien beste agente batzuk.

Jarduketak funtsen bidez finantzatu dituzten onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratatistak, baldin eta interes propioen alde jardun badezakete, baina EBren interes finantzarioen kontra, interes-gatazka batean.



Interes-gatazka motak eta interes-gatazkarik ezaren

adierazpen motak (IGEA)

Interesak adierazteko prozesuak, non enplegatuek eta alderdi interesdunek ezagutarazi behar baitute erabakiak hartzeko unean eragin dezakeen interes pertsonalik duten. Horiek horrela, interes-gatazka eragingo lukeen egoerari erreparatuta, honako hauek bereiz daitezke:

- Itxurazko interes-gatazka.
- Balizko interes-gatazka.
- Benetako interes-gatazka.

Bi IGEA mota daude. Bata, HFP/1030/2021 Aginduan ageri dena, tresna juridiko guztietarako bete behar da; bestea, HFP/55/2023 Agindukoa, kontratu eta dirulaguntzetarako soilik bete behar da.



Aldizkako kontrolak eta egiaztapen gehigarriak

Aldizkako kontrolak eta auditoriak egingo dira balizko interes-gatazkak detektatzeko, eta, horien osagarri, datuak gurutzatuko dira MINERVA data-mining aplikazioa erabiliz, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikulutik 7. artikulura bitartean ezarritakoari jarraituz, 55/2023 Aginduko IGEA agiriei dagokienez.

1030/2021 Aginduko IGEA agirien egiazkotasuna LibreBor bidez egiaztatuko da.



IGEA: sinatzaileak eta egiazkotasuna

Plana aplikatu behar zaien sektore publikoko entitateen zerbitzura dauden eta SEM bidez finantzaturako azpiproiektuen eta jardueren kudeaketan eta betearazpenean esku hartzen duten agintari eta langile guztiek interes-gatazkarik ez dutela adierazten duen adierazpen bat beteko dute.

Zehazki, eta HFP/1030/2021 Aginduaren III.C eranskinean zehazten den bezala, adierazpen hori sinatu beharko dute dirulaguntza emateko/kontratatze organoaren arduradunak, lizitazioen/oinarrien agiriak eta/edo deialdiak idazten dituzten langileek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatze batzordeetako kideek eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoetako kideek. Kontratu txikien eta bitarteko propioentzako mandatuen kasuan, espedientea proposatu edo bultzatu duen unitatearen titularrak beteko du adierazpena.

Gainera, IGEA beteta aurkezteko eskatuko zaie onuradunei, baldin eta, laguntza emateko betekizun gisa, balizko interes-gatazka duten jarduerak egin behar badituzte.

HFP/55/2023 Aginduan araututako prozeduraz gain, agindu horren 3. artikuluan aipatutako langileek IGEA espezifiko bat sinatu beharko dute, SEEPen bidez finantzaturako dirulaguntzak eta kontratuak prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile inpartzialak direla bermatzeko.



Errekusazio-sistema eta kontrol gehigarria

Errekusazio-sistemak daude, ziurtatzeko interes-gatazka ezagunak dituztenek ez dutela parte hartuko erabakietan edo ekintzetan, baldin eta gatazka horrek eragina izan badezake horien emaitzan.

Osagarri gisa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, IGAErekin lankidetzan arituz (III. maila), berriazko auditoriak egin ahal izango ditu ikusteko ea badagoen nahikoa neurri interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko.



Prestakuntza

Interes-gatazkak identifikatu eta kudeatzeari buruzko prestakuntza eta gaikuntza erregularra.

Maila hierarkiko guztietako langileentzat izango dira prestakuntza-jarduerak, eta bilerak, mintegiak, lantaldeak eta abar antolatuko dira.

Finantzaketa bikoitza
saihesteko prozesuak eta
tresnak



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Estatuaren laguntzak eta finantzaketa bikoitza saihesteko prozesuak eta tresnak



01

02

03

04

Hauek dira Eusko Jaurlaritzak finantzaketa bikoitza saihesteko dituen **prozesu eta tresna nagusiak**:



Autoebaluazio zorrotza: arriskuak autoebaluatzeko prozesua da, finantzaketa bikoitza izateko aukera identifikatu eta gutxitzeko helburua duena.



Kudeaketa-adierazpenak: eskatzaileek kudeaketa-adierazpenak bete behar dituzte, proiektuek finantzaketa bakarria izan dutela ziurtatzeko.



Barne-kontrolak: barne-kontrolako protokoloak ezartzen dira, laguntza finantzarioaren berezitasuna berrikusi eta balidatzeko.

Sei hilean behingo kontrol-plana baliatuko da



Arauk betetzea: funtsak metatzea eragozten duten Europako arauekin bat egiten da.



Gardentasuna eta dokumentazioa: egiaztagiriak aurkeztu behar dira, ziurtatzeko jasotako laguntzek ez dutela bikoiztasunik sortu.




Detektatzea eta zuzentzea: gorabeherak detektatzeko eta finantzaketa bikoitza berehala zuzentzeko prozedura argiak daude.

SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Estatuaren laguntzak eta finantzaketa bikoitza saihesteko prozesuak eta tresnak –
Kontrol gehigarriak



Buru-belarri lantzen ari garen programan, osagarri gisa, finantzaketa bikoitza prebenitzeko garrantzitsuak izan daitezkeen zenbait gai jorratu ditugu.



DNSH printzipioa bermatzeko
prozesuak eta tresnak



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

DNSH printzipioa bermatzeko prozesuak eta tresnak



“Do No Significant Harm” (DNSH) printzipioa –euskaraz, “kalte esanguratsurik ez eragitea”– funtsezko kontzeptua da jasangarritasunaren eta Europako finantzaketaren arloetan; bereziki, Europako Itun Berdeari eta EBko taxonomiari dagokienez.

Eusko Jaurlaritzaren esparruan, entitate betearazleen betebeharra da ebaluatzea SEEPen neurriek DNSH printzipioa betetzen dutela. Ebaluazioa bi etapatan egiten da:



Definitutako sei helburuetan aurreikusten den inpaktuaren balorazioa.

Baloratu behar da ea kasuan kasuko neurriak baduen inpakturik aurreikusita, sei ingurumen-helburuetako bakoitzari dagokionez. Neurriak ez badu ingurumen-inpakturik aurreikusita helbururen batean, horren arrazoiak azaldu beharko dira, helburu bakoitzerako.

Justifikazio substantiboa eta sinplifikatua.

Lehenengo etapa amaituta, bigarren etapan, justifikatu beharko da zein kasutan dagoen aurreikusita neurriak ingurumen-helbururen batean inpaktua izatea.

Prozeduren eskuliburuan azaltzen da, zehatz-mehatz, nola justifikatu behar den DNSH printzipioa.


Pregunta	Si	Justificación solicitada
1. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		
2. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		
3. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		
4. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		
5. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		
6. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		
7. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		
8. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		
9. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		
10. ¿Existe un estudio de impacto ambiental o de otro tipo que permita evaluar el efecto de las actividades propuestas en los ODS?		

Sei helburu nagusi

Inbertsio jasangarriak bultzatzeko esparrua ezartzen duen (EB) 2020/852 Erregelamenduak sei helburu hauek identifikatzen ditu DNSH printzipioa betetzeko:

- ◆ Klima-aldaketa **arintzea**.
- ◆ Klima-aldaketara **egokitzea**.
- ◆ Ur eta itsas baliabideak **modu jasangarrian erabiltzea eta babestea**.
- ◆ **Ekonomia zirkularrerako** trantsizioa egitea, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne hartuta.
- ◆ **Kutsadura** prebenitu eta kontrolatzea.
- ◆ Biodibertsitatea eta ekosistemak **babestea eta leheneratzea**.

Ondorioak eta amaiera



SEEPen esparruan iruzurraren aurka borrokatzeko prestakuntza

Ondorioak eta amaiera –Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko printzipio bereziak



Bereziki Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren testuinguruan iruzurra prebenitzeari dagokionez, eta ondorio gisa, garrantzitsua da printzipio eta estrategia hauek nabarmentzea eta garatzea:



Iruzurra detektatzeko eta monitorizatzeko sistema aurreratuak

Teknologia-sistema espezializatuak ezartzea, funtsak esleitu eta erabiltzean ezohikoak edo susmagarriak diren patroiak detektatu ahal izateko. Horren barruan sartzen da adimen artifiziala eta ikaskuntza automatikoa erabiltzea, datu eta transakzio multzo handiak analizatzeko.



Auditoria sarriak eta metodikoak

Barne- eta kanpo-auditoria erregularrak egitea, prozedurak betetzen direla eta funtsak behar bezala erabiltzen direla egiaztatzeke. Hala eginez gero, errazagoa izango da irregulartasunak garaiz identifikatu eta zuzentzea.



Iruzurrak detektatzeko prestakuntza espezifikoak

Iruzurrak detektatzeko teknikan trebatzea enpleguak; bereziki, proiektuak gainbegiratzen eta haien finantzaketa kudeatzen parte hartzen duten langileak. Funtsean, lagunduko zaie alerta-seinaleak identifikatzen eta iruzur egiteko metodo ohikoenak ulertzen.



Due Diligence kontrol zorrotzak

Proiektuak onartu edo funtsak banatu baino lehen, *due diligence* (behar besteko ardura) prozesu sakona egin behar da, onuradunak fidagarriak eta egokiak diren ebaluatzeke. Horrek barnean har dezake aurrekariak egiaztatzea eta gaitasun finantzarioa ebaluatzea.



Kontrol-agintaritzarekin lankidetzan aritzea

Organismo arautzaileekin eta kontrol finantzarioko agintaritzekin estuki lan egitea, jarduera susmagarrien berri emateko, batetik, eta iruzurra prebenitzeko informazioa jasotzeko, bestetik.



Salaketetarako kanal seguru eta anonimoak

Salaketak egiteko mekanismoak ezartzea, enplegatuek, kontratistek eta herritarrek iruzur-susmoen berri eman dezaten modu seguru eta konfidentzian.



Politika errazak eta ondorio zehatzak

Iruzurrari eta ustelkeriari buruzko politika argiak garatu eta jakinaraztea, eta ziurtatzea inplikatu guztiek ulertzen dituztela arauak eta horiek ez betetzearen ondorioak.



Prozesuak berrikusi eta hobetzea etengabe

Iruzurra prebenitzeko politikak eta jardunbideak erregularri ebaluatu eta eguneratzea, iruzur egiteko taktika eta erronka berrietara egokitzeke; izan ere, denborarekin aldatzen doaz iruzur egiteko moduak. Etengabeko hobekuntza funtsezkoa da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan iruzurraren kontrako giro sendo eta erresiliente sortzeko. Prozesuak etengabe berrikusiz, planaren finantza-osotasuna ziurtatzen da, herritarren konfiantza lortzen da, eta planaren epe luzeko helburuak lortzeko eraginkortasuna handitzen da.